Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2019ko apirilaren 25a, osteguna — 77 — Jueves, a 25 de abril de 2019

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## ZARAUZKO UDALA

**Euskara Departamentua**

*Iragarkia*

Udal honetako Tokiko Gobernu Batzarrak, 2019ko apirilaren 8an egindako bilkuran, hurrengo dirulaguntzak emateko deialdia onartu zuen:

*Establezimenduetako irudi korporatiboa euskaraz jartzeko dirulaguntzak emateko 2019rako deialdia.*

Xedapen hauek ezartzen dituzte oinarri arautzaileak:

— Zarauzko Udalak eta bere Erakunde Autonomoek dirulaguntzak emateko Ordenantza Orokor arautzailea (2008ko uztailaren 22ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 140 zk.).

— Errotuluak, irudi korporatiboa eta webguneak euskaraz jartzeko dirulaguntzak emateko oinarri espezifikoak. Hasierako onespena. 2019. urterako oinarri espezifikoak (2019ko martxoaren 28an egindako osoko bilkuran).

2019ko apirila.

1. *Helburua.*

Deialdi honen helburua da Zarauzko Udalak establezimenduetako irudi korporatiboa euskaraz jartzeko ematen dituen dirulaguntzak bideratzea, irudi korporatibotzat hartuko direlarik ibilgailuetako errotulazioa, paperezko poltsak, poltsa konpostagarriak, biltzeko papera, karta-azalak, orri idazpurudunak, bisita-txartelak, taloitegiak, albaranak, fakturak, etab.

Dirulaguntza hauen xede diren jarduerek berariaz euskararen erabilera soziala sustatu, hedatu edo normalizatzea izango dute helburu espezifiko.

2. *Laguntzak emateko prozedura.*

Laguntza hauek elkarrekiko lehiakortasun jardunbideaz emango dira.

3. *Onuradunak.*

Pertsona edo entitate onuradunek honako baldintzak bete beharko dituzte:

— Helbide fiskala eta egoitza edo ordezkaritza iraunkorra Zarautzen duten pertsonek edo elkarteek eskuratu ahal izango dituzte dirulaguntzak.

— Establezimenduak beharrezko lizentziak izatea.

— Irudi korporatiboko elementuak euskaraz bakarrik idatzita egotea, eta euskara zuzena eta egokia erabiltzea.

— Ez da dirulaguntzarik emango irudi korporatiboa osatzen duten elementuetan izen berezia bakarrik agertzen denean; langintza motaren edo jarduera profesionalaren adierazlea hartuko da kontuan.

## AYUNTAMIENTO DE ZARAUTZ

**Departamento de Euskera**

*Anuncio*

La Junta de Gobierno Local de este Ayuntamiento, en sesión celebrada el día 8 de abril de 2019, ha aprobado la siguiente convocatoria de subvenciones:

*Convocatoria para el otorgamiento de subvenciones para 2019 para poner en euskera la imagen corporativa de los establecimientos.*

Disposiciones que establecen las bases reguladoras:

— Ordenanza General reguladora del otorgamiento de subvenciones por el Ayuntamiento de Zarautz y sus Organismos Autónomos (Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 140, de 22 de julio de 2008).

— Bases específicas del otorgamiento de subvenciones para la instalación en euskera los rótulos, imagen corporativa o las páginas web para el año 2019 (aprobadas por el Pleno del Ayuntamiento en sesión celebrada el día 28 de marzo de 2019).

Abril de 2019.

1. *Objeto.*

Es objeto de la presente convocatoria poner en marcha el otorgamiento de las subvenciones que el Ayuntamiento de Zarautz concede por poner en euskera la imagen corporativa de los establecimientos, considerando como tales la rotulación de vehículos, bolsas de papel y bolsas compostables, sobres, folios con membrete, tarjetas de visita, talonarios, albaranes, facturas, etc.

Los proyectos y actuaciones que deseen acogerse a las presentes ayudas deberán tener como objetivo específico fomentar, ampliar o normalizar el uso social del euskera.

2. *Procedimiento de concesión de las subvenciones.*

La concesión de la subvención se efectuará en régimen de concurrencia competitiva.

3. *Solicitudes.*

Las personas o entidades beneficiarias deberán cumplir los siguientes requisitos:

— Podrán solicitar las subvenciones las personas o asociaciones que tengan su domicilio fiscal y su sede o delegación permanente en Zarautz.

— El establecimiento deberá tener la correspondiente licencia.

— Los elementos que formen parte de la imagen corporativa estarán redactados íntegramente en euskera, de una forma correcta y adecuada.

— No se concederá subvención alguna cuando los elementos de la imagen corporativa estén compuestos únicamente por nombres propios; se tendrá en cuenta la referencia a la actividad profesional o tipo de trabajo.

EK\CV GAO-I-2019-02587

— Aurkeztutako fakturak 2018ko apirilaren 26tik ondorengoak izan beharko dute.

— Udalak behin bakarrik emango du irudi korporatiboko elementuak euskaraz sortzeko edo gaztelaniazkoak euskaratzeko dirulaguntza. Dirulaguntza eskatzaileak, bere aldetik, konpromisoa hartuko du diruz lagundutako irudi-korporatiboko elementuak euskaraz izaten jarraituko dutela hortik aurrera ere.

Onuradunak izateko debekua:

Oinarri hauetan araututako dirulaguntzak ezingo ditu jaso ondorengo zirkunstantziaren batean dagoen erakundeak:

— 38/2003 Legeak, azaroaren 17koak, dirulaguntzenak, 13.2 artikuluan zerrendatutako edozein.

— 26/2015 Lege Organikoak, uztailaren 28koak, ezarritakoari jarraikiz, sexu-delituengatik administrazio-, lan- edo zigor-arloko zehapenak jaso dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoei.

— Emakume eta Gizonen Benetako Berdintasunari buruzko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan eta Emakume eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean ezarritako betekizunak betetzen ez dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoei.

— Emakume eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioaren aurkako helburuak, sarbide-sistemak, funtzionamendua, ibilbidea, jarduera, antolaketa edo estatutuak dituzten, eta sexuaren, ideologiaren, jaioterriaren, nazionalitatearen edo sexu-joeraren ziozko diskriminazioa egiten duten pertsona fisiko nahiz juridikoei (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Zarauzko Udal Ordenantzaren 38. artikulua).

— Berdintasunerako eta sexuagatik diskriminatuta ez izateko eskubidea urratzeagatik administrazio-, lan- edo zigor-arloko zehapenak jaso dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoei (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Zarauzko Udal Ordenantzaren 38. artikulua).

4. *Eskariak aurkezteko lekua eta epea.*

Inprimakiak (Euskarako 7.4.A, eta 7.4.B ereduak) osorik eta ongi beteta, Udaletxeko Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira:

Udaletxea (HAZ - Herritarren Arreta Departamentua, Kale Nagusia 29): astelehenetik ostiralera, 7:30etik 15:00etara; ostegunetan: 17:00etatik-19:00etara.

— Udal Zerbitzu Telematikoak.

Halaber, 2015eko urriaren 1eko Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikuluak aipatzen dituen lekuetan ere aurkeztu ahal dira.

Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikuluak aipatzen dituen lekuetan ere aurkeztu ahal dira posta bulegoetan aurkezten diren eskaera-orriak aurkezpen-epearen barruan eta gutun-azal irekian eman behar dira, ziurtatu aurretik Postetxeko funtzionarioak data eta zigilua jar diezaien. Horrela bakarrik ulertuko da instantziak posta bulegoan utzi ziren egunean izan dutela sarrera Zarauzko Udalaren Erregistro Nagusian. Instantzia da zigilua eraman behar duena.

2019. urtean, dirulaguntza hauek eskatzeko epea:

— *Zkia.:* 1.
*Gaia:* Establezimenduetako irudi korporatiboa euskaraz jartzeko dirulaguntza.
*Epea:* Hilabete deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizial-ean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

5. *Zuzkidura eta aurrekontuko partida.*

1. Deialdi honetako dirulaguntzak emateko, bi mila (2.000,00 €) euroko gastua baimentzen da, aurrekontu xedapen eta helburu hauekin:

— Las facturas presentadas deberán estar emitidas a partir del 26 de abril de 2018.

— El Ayuntamiento solamente concederá una única subvención para poner los elementos de la imagen corporativa en euskera. El solicitante de la subvención, por su parte, se comprometerá a mantener en adelante los elementos de la imagen corporativa en euskera.

Prohibición para beneficiarse de las subvenciones:

No se podrá beneficiar de las subvenciones reguladas en estas bases cualquier entidad que esté en alguna de las siguientes circunstancias:

— Alguna de las circunstancias previstas en el artículo 13.2 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

— Personas físicas o jurídicas sancionadas administrativamente, laboralmente o penalmente por delito sexual, de acuerdo a lo establecido por la Ley Orgánica 26/2015, de 28 de julio.

— Personas físicas o jurídicas que no cumplen con los requisitos establecidos por la Ley Orgánica 3/2007 de 22 de marzo para la Igualdad Efectiva de Mujeres y Hombres y la Ley 4/2005 para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

— Personas físicas o jurídicas con objetivos, sistemas de acceso, funcionamiento, trayectoria, práctica, organización o estatutos contrarios al principio de igualdad entre mujeres y hombres, o que discriminan por razón de sexo, ideología, origen étnico, nacionalidad u orientación sexual (artículo 38 de la Ordenanza Municipal de Zarautz para la Igualdad entre Mujeres y Hombres).

— Personas físicas y jurídicas sancionadas administrativamente, laboralmente o penalmente por haber vulnerado el derecho a la igualdad y el derecho a no ser discriminado o discriminada por razón de sexo (artículo 38 de la Ordenanza Municipal de Zarautz para la Igualdad entre Mujeres y Hombres).

4. *Lugar y plazo de presentación de las solicitudes.*

Los impresos (modelo 7.4A y 7.4B) debidamente cumplimentados en su totalidad deberán presentarse en el Registro General del Ayuntamiento:

— Casa Consistorial (SAC - Servicio de Atención al Ciudadano): lunes a viernes de 7:30 a 15:00; jueves: de 17:00 a 19:00.

— Servicios telemáticos municipales.

Asimismo, en cualquiera de los lugares a los que se refiere el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre de 2015, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Las instancias presentadas en las Oficinas de Correos, de acuerdo con lo previsto en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas. se presentarán, en sobre abierto, para ser fechadas y selladas por el personal de correos antes de ser certificadas dentro del plazo de presentación de instancias. Sólo en este caso se entenderá que las instancias han tenido entrada en el Registro General del Ayuntamiento de Zarautz. Es la instancia la que debe estar sellada.

En el año 2019, el plazo de presentación de solicitudes de dichas subvenciones será el siguiente:

— *N.º:* 1.
*Materia:* Subvención para poner en euskera la imagen corporativa del establecimiento.
*Plazo:* Un mes contado a partir del día siguiente al de la publicación de la correspondiente convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

5. *Dotación y partida presupuestaria.*

1. Se autoriza un gasto por importe de dos mil (2.000,00) euros para las subvenciones de esta convocatoria, con la siguiente imputación presupuestaria y destino:

EK\CV GAO-I-2019-02587

— *Zkia.:* 1.

*Gaia:* Establezimenduetako irudi korporatiboa euskaraz jartzeko dirulaguntza.

*Aurrekontu atala:* 0701.481.01.335.00 2019 04319.

*Zenbatekoak:* 2.000,00 €.

2. Jasotako eskarien arabera, ordaindu beharreko kantitatea handiagoa bada aurrekontuan horretarako izendatutako kopurua baino, orduan, aldi horretan banaketa proportzionala egingo da.

3. Halaber, baimendutako gastua handitu edo murriztu ahal izango du aldaketaren zenbatekoaren arabera eskumena esleituta duen organoak, diru- laguntza ematea ebatzi baino lehen. Dena den, horrek ez du beste deialdi bat egitea ekarriko.

*6. Aurkeztu beharreko agiriak.*

Dirulaguntza jaso ahal izateko, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira Zarauzko Udaleko Erregistro Nagusian:

a) Eskaera eredua behar bezala beteta: eskatzailearen datuak eta eransten diren dokumentuak adierazita (7.4A eranskina).

b) Erakunde eskatzailearen pertsona arduradunaren edo ordezkariaren NANaren fotokopia.

c) Identifikazio Fiskaleko Zenbakiaren fotokopia konpultsatua.

d) Gastuen jatorrizko fakturak edo horien fotokopiak konpultsatuak eta dagozkien ordain agiriak.

e) Diruz lagundutako elementuaren ale bat (eta hori ezinezkoa denean, argazki bat).

f) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duen zinpeko aitorpena. (7.4B eranskina).

Udalak hala eskatuz gero, deialdiaren helburuak betetzeko argigarria den informazio osagarria aurkeztu beharko dute eskatzaileek.

*7. Dirulaguntzak esleitzeko eta neurtzeko irizpideak.*

Eman beharreko dirulaguntzak kalkulatzeko, honako irizpide hau hartuko da kontuan:

— Euskaraz jarritako irudi korporatiboaren elementu bakoitzeko kostuaren % 50 izango da dirulaguntza, baina kontzeptu honengatik ematen diren dirulaguntzen baturak ezingo du 350,00 euroko muga gainditu.

*8. Ebazpena eta jakinarazpena.*

Prozeduraren ebazpenak administrazio-bidea amaituko du, eta eman eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da. Epe hori kontatzen hasiko da deialdia argitaratzen denetik aurrera.

Prozeduraren ebazpena jakinaraziko zaie interesatuei Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeko 40. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, eta bideratzea egingo da lege horretako 42 eta 44 artikuluek jasotzen dituzten xedapenen arabera; betiere, emandako dirulaguntzak Zarauzko Udalaren web gunean argitaratzea baztertu gabe.

Organo eskudunak.

— Antolamendua eta instrukzioa (Instrukzio-organoa): Euskara Departamentuko arduraduna.

— Azterketa eta balioespena (Balioespen Batzordea): Kide anitzeko organo bat, dirulaguntza ematen duen departamentuko informazio-batzordeko kideek osatutakoa.

— Ebazpena (Organo eskuduna): Alkatetzari edo Tokiko Gobernu Batzarrari egokituko zaio, Udalaren administrazio-antolamenduan une bakoitzean indarrean diren eskumenekin eta aldi bateko eskuordetzeekin bat etorriz.

— *N.º:* 1.

*Materia:* Subvención para poner en euskera la imagen corporativa del establecimiento.

*Partida presupuestaria:* 0701.481.01.335.00.2019 04319.

*Importes:* 2.000,00 €.

2. Cuando la cantidad a pagar por las solicitudes recibidas sea superior a la dotación presupuestaria total consignada en el presupuesto para ese concepto, se procederá al prorrateo proporcional a la cantidad que corresponda a cada solicitante.

3. No obstante, el importe del gasto autorizado podrá ser incrementado o disminuido, con carácter previo a la resolución de las solicitudes presentadas, por el órgano que tenga atribuida la competencia por razón de la cuantía de la modificación, sin que ello dé lugar a una nueva convocatoria.

*6. Documentación a aportar.*

Para acceder a la subvención el solicitante deberá presentar los siguientes documentos en el Registro General del Ayuntamiento de Zarautz:

a) Impreso de solicitud debidamente cumplimentado: indicando los datos del solicitante y los documentos que se adjuntan (anexo 7.4A).

b) Fotocopia del DNI de la persona responsable o representante de la entidad solicitante.

c) Fotocopia compulsada del Código de Identificación Fiscal.

d) Facturas originales o fotocopias compulsadas y sus correspondientes justificantes de pago.

e) Un ejemplar del elemento subvencionado (y cuando eso no es posible, una foto).

f) Declaración jurada (anexo 7.4B) acreditativa de encontrarse al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social.

El solicitante deberá entregar toda la información accesoria relacionada con el cumplimiento de los objetivos de la convocatoria que sea solicitada por el Ayuntamiento.

*7. Criterios de adjudicación y determinación de la cuantía de la subvención.*

Para el cálculo de las ayudas a conceder se tendrá en cuenta el siguiente criterio:

— La subvención será del 50 % del coste de cada elemento de la imagen corporativa, sin que el importe total a subvencionar por dichos conceptos supere la cantidad de 350,00 euros.

*8. Resolución y notificación de la subvención.*

La resolución del procedimiento pondrá fin a la vía administrativa y el plazo máximo para resolver y notificar la misma no podrá exceder de seis meses. El plazo se computará a partir de la publicación de la correspondiente convocatoria.

La resolución del procedimiento se notificará a los interesados de conformidad con lo previsto en el artículo 40 de la Ley 39/2015, y su práctica se ajustará a las disposiciones contenidas en los artículos 42 y 44 de la citada ley. Todo ello sin perjuicio de la publicación de las subvenciones concedidas en la página web del Ayuntamiento de Zarautz.

Órganos competentes.

— Ordenación e instrucción (Órgano Instructor): El Responsable del Departamento de Euskera.

— Examen y valoración (Comisión de Valoración): Un órgano colegiado integrado por los miembros de la Comisión informativa correspondiente al departamento que concede la subvención.

— Resolución (Órgano Competente): Corresponderá a la Alcaldía o a la Junta de Gobierno Local conforme a las competencias y eventuales delegaciones vigentes en cada momento en la organización administrativa del Ayuntamiento.

EK\CV GAO-I-2019-02587

9. *Errekurtsoak.*

Interesatuek deialdi honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete administrazioarekiko auzietako Donostiako epaitegietan, argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko oinarri hauek onartu dituen organo eskudunaren aurrean, argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Zarautz, 2019ko apirilaren 16a.—Jesus Arana Gomez, jarduneko alkatea. (2587)

9. *Recursos.*

Las personas interesadas podrán interponer directamente contra la presente convocatoria recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante el órgano competente que la haya aprobado, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

Zarautz, a 16 de abril de 2019.—El alcalde en funciones, Jesus Arana Gomez. (2587)

EK\CV GAO-I-2019-02587